

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEEI

- ❶ 1993ko abuztuaren 4an, HABEko Zuzendari Nagusiaren ebazpeneko 6.artikuluari oinarrituz:
 - a. Euskaltegia ez da 16 urtetik beherako ikaslerik onartuko.
 - b. Taldeak 9 eta 18 ikasle bitartekoak izango dira.
Taldea txikiago edo handiagoak sortu nahian HABEko Lurralde Ikusatzaitzaren baimen idatzia beharko du euskaltegiak.
- ❷ Euskalduntze eta alfabetatze taldeetan matrikula, euskaltegiak horretarako antolatutako ahozko nahiz idatzizko probak burutu eta gero egingo da.
- ❸ Ikaslea derrigorrean onartuko da, beti ere, beharrezkoak diren baldintzak betez gero eta plazarik badago.
- ❹ Ikasturteari dagokion plangintza ahalik eta zehatzen egitearren, aurrematrikula gauzatu nahi duten ikasleek ikasturte osoko kostuaren erdia ordainduko dute. Diru kopuru hori bueltatuko da baldin eta aurrematrikula baliogabetzeko erabakiaren berri 2024ko Irailaren 23rako helarazten bazaio Getxoko Udal Euskaltegiari edota eskatutako orduan ikasleak behar duen taldea sortzen ez bada.
Eskaerak plazak baino gehiago balira aurrematrikula eginiko ordena kronologikoari estu-estu jarraituta onartuko da ikaslea.
- ❺ Ikasleek honako eskubideak izango dituzte:
 - a. Duintasunez tratatuak izatekoa.
 - b. Euskaltegiaren ardua taldeen aurrean egokiak deritzeten iradokizun eta gora jotzekoak egitekoa. Arazorik edo kexarik izanez gero, honako urrats hauek eman beharko lirateke: lehenengo irakaslearekin konpontzen saiatu eta bigarrenik bulegora jo zuzendaritzarekin hitzordua eskatzeko.
 - c. Ezarritako ordutegia errespetatua izan dadin; bestalde, eskola orduak bete ahal izan ezean gutxienez bi eguneko aurrerapenez izango dute berri, arazo larririk gertatzen denean izan ezik.
 - d. Kalitatezko irakaskuntza jasotzekoa eta euskaltegiak eskaintzen dituen baliabide teknikoak erabiltzekoa.
- ❻ Ikasleen betebeharrak hauek dira:
 - a. Irakasle eta ikaskideen duintasuna errespetatzea.
 - b. Irakaskuntza sistema eta euskaltegi programazioa onartzea.
 - c. Irakasleak agindutako lanak gelan zein etxean betetzea.
 - d. Taldez aldatzea, irakasleak proposatuta eta ikaslea entzunda, zuzendaritza akademikoa ados dagoela.
 - e. Matrikula ordaintzea ezarritako epean, baita materiala eta fotokopien gastuak.
 - f. Baliabide eta instalazioen erabilera egokiaz arduratzea.
- ❼ Irakasleak ikaslearen jokaerari desegoki edota beronen faltei taldearentzat kaltegarri baderitze ikasleari jakinaraziko zaio. Bere horretan jarraituz gero Gobernu Batzordeak behar diren neurriak hartuko ditu.
- ❽ Ikaslea 25 ordu jarraian eta aldeztatik abisatu barik euskaltegiara ez badator baja izango da. Ez zaio matrikula dirurik itzuliko. Bestalde, matrikula epeka ordaintzea aukeratu balu, ordaindu bako epeak ordaindu egin beharko lituzke.
- ❾ Ikaslea ebaluatu ahal izateko, salbuespenak salbuespen, ikastorduetatik %75 bete beharko du. Horrela ez bada ez du maila gaitutiko.
- ❿ AUTOIKASKUNTZAn abenduaren 31rako 30 ordu bere kabuz egin ez dituen ikaslea bajatzat har dezake euskaltegiak.